Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen, hogeita hamar eguneko (30) epean, iragarki hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita; eta, horrenbestez, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzakete epe horren barruan, Vitoria-Gasteizko (Araba) Alkatetzan edo lurralde-bulego honetan (Forondako Atea 9-11, 01010 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai, nahi duenak azter dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko otsailaren 5a.– Arabako Lurralde Bulegoko Burua, BLANCA GUINEA ASTOBIZA.

Lo que se hace público para general conocimiento por un plazo de treinta (30) días, contados a partir del siguiente a la fecha del Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava, en que se publique este anuncio, a fin de que quienes se consideren perjudicados con la autorización solicitada, puedan presentar sus reclamaciones, durante el indicado plazo, en la Alcaldía del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, (Álava), o en esta Oficina Territorial sita en C/ Portal de Foronda, 9-11. 01010, Vitoria-Gasteiz, donde estará de manifiesto el expediente de que se trata.

Vitoria-Gasteiz, a 5 de febrero de 2007.– La Jefa de la Oficina Territorial de Álava, BLANCA GUINEA ASTOBIZA.

## EUSKO JAURLARITZA

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

*Arabako Lurralde Bulegoa*

**2698**

**GARLAN Sdad. Coop. Ltda. enpresaren jarduerako ur araztuen birika-biltegia urtean bitan hustean ateratzen diren hondakin-urak isurtzeko baimena. Erriberabeitiako udalerriko Rivabellosa herrian du kokalekua enpresak.**

Espediente-zenbakia: V-01-06030

Eskatzailea: Garlan Sdad. Coop. Ltda.

Garlan Sdad. Coop. Ltda. enpresak baimena eskatu dio Eusko Jaurlaritzako Ingurumeneko Arabako Lurralde Bulegoari, enpresan dagoen birika-biltegia urtean bitan husten denean ateratzen diren araztutako hondakin-urak eta ibilgailu astunen joan-etorrirako plataformatik datozen isurketa-urak Rivabellosako Baias ibaiko errotaren ibilgura isurtzeko. Isurketa-uretarako, nahitaezkoa izango da ibilgura isuri aurretik dekantatu eta jarraian hidrokarburoak bereizteko gailu bat jartzea.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen, HOGEITA HAMAR eguneko epean, iragarkia Arabako Lurralde Historikoko Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita; eta, horrenbestez, eskatu den baimenak nolabaiteko kalteren bat eragingo diela uste dutenek erreklamazioak aurkeztu ditzakete epe horren barruan, Arabako Erriberabeitiako Udaleko Alkatetzan edo Uren Zuzendaritzako bulego hauetan (Forondako atea, 9-11 01010, Vitoria-Gasteiz). Dosierra Uren Zuzendaritzan izango da, nahi duenak azter dezan.

Gasteizen, 2007ko martxoaren 15ean.– Arabako Lurralde Bulegoko burua, BLANCA GUINEA ASTOBIZA.

## GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

*Oficina Territorial de Álava.*

**2698**

**Autorización de vertido de aguas residuales procedente del vaciado 2 veces al año del depósito pulmón de aguas depuradas de la actividad de la empresa GARLAN Sdad.Coop.Ltda. Ubicada en la localidad de Rivabellosa, t.m. de Ribera baja.**

Expediente número: V-01-06030

Peticionario/a: Garlan Sdad. Coop. Ltda.

La empresa Garlan Sdad. Coop. Ltda, ha solicitado a la Oficina Territorial de Medio Ambiente de Álava del Gobierno Vasco, autorización del vertido de aguas residuales depuradas a cauce de molino de rio Baias en Rivabellosa, procedente del vaciado 2 veces al año del depósito pulmón existente en la empresa, así como de las aguas de escorrentía procedentes de la plataforma de tránsito de vehículos pesados. Para las aguas de escorrentía se exigirá antes de su vertido a cauce la disposición de un separador de hidrocarburos con una decantación previa.

Lo que se hace público para general conocimiento por un Plazo de TREINTA DÍAS, contados a partir del siguiente a la fecha del Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava en que se publique este anuncio, a fin de que quienes se consideren perjudicados con la autorización solicitada, puedan presentar sus reclamaciones, durante el indicado plazo, en la Alcaldía del Ayuntamiento de Ribera Baja (Álava), ó en estas oficinas sitas en C/ Portal de Foronda 9-11- 01010, Vitoria-Gasteiz, donde estará de manifiesto el expediente de que se trata.

Vitoria-Gasteiz, a 15 de marzo de 2007.– La Jefa de la Oficina Territorial de Álava, BLANCA GUINEA ASTOBIZA.

## EUSKO JAURLARITZA

KULTURA SAILA

**2362**

**EBAZPENA, 2007ko martxoaren 27koa, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearena, Oyón-Oionen (Araba) den Labrazako Hirigune Historikoa Monumentu Multzo izendapenaz, Sailkatutako Kultura Ondasun deklaratzeko espedienteari hasiera eman eta jendaurrean jarri eta interesdunei entzuteko dena.**

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioko 148.1.16 eta Estatutuko 10.19 artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondareari dagokionez. Aipaturiko eskumen horretaz baliatuz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena, onartu zen.

Uztailaren 17ko 265/1984 Dekretuaren bitartez (abuztuaren 4ko 132 zk.a duen EHAA), Labrazako Harresia nazio mailako Monumentu Historiko-Artistikoa izendatu zen.

## GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA

**2362**

**RESOLUCIÓN de 27 de marzo de 2007, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se incoa y se somete a información pública y audiencia a los interesados el expediente para la declaración de Bien Cultural Calificado, con la categoría de Conjunto Monumental, a favor del Casco Histórico de Labraza, sito en Oyón-Oion (Álava).**

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural. En ejercicio de la competencia asumida, se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco que rige los procedimientos de declaración de bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Mediante Decreto 265/1984, de 17 de julio (BOPV nº 132, de 4 de agosto) se declaró Monumento Histórico-Artístico de carácter Nacional la Muralla de Labraza.

Oyón-Oionen (Araba) den Labrazako Hirigune Historikoak daukan interes historiko-arkitektonikoa azterturik, eta Kultura Ondarearen Zentroko Zerbitzu Teknikoek aurkezturiko Ebazpen Proposamenari jarraituz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Oyón-Oionen (Araba) den Labrazako Hirigune Historikoa Monumentu Multzo izendapenaz, Sailkatutako Kultura Ondasun deklaratzeko espedienteari hasiera ematea, I. Eranskinean egindako mugaketa eta II. Eranskinean egindako objetuaren eta bere osagaien deskripzioaren arabera, hala nola III. Eranskinean atxikitzen den babes araubidea ere kontutan hartuz.

Espediente honi hasiera emateak uztailaren 3ko 7/1990 Euskal Kultura Ondareari buruzko Legeak sailkatutako ondasunentzat ezartzen duen babes-araubidearen behin-behineko aplikazioa eragingo du.

Bigarrena.- Oyón-Oionen (Araba) den Labrazako Hirigune Historikoa monumentu Multzo izendapenaz, Sailkatutako Kultura Ondasun deklaratzeko hasitako espedientea jendaurrean jartzeko epeari hasiera ematea, I. Eranskinean agertzen den mugaketan oinarrituz, II. Eranskineko deskribapena kontutan hartuz eta babes araubide gisa III. Eranskinean agertzen dena ezarriz. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, 20 eguneko epea egongo da alegazioak egin eta egokitzat jotzen diren agiriak aurkeztu ahal izateko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legearen 84. eta 86. artikuluetan jasotzen denari jarraiki. Aipaturiko espedientea Euskal Kultura Ondarearen Zentroan dago ikusgai (Donostia-San Sebastián kalea, 1, Vitoria-Gasteiz).

Hirugarrena.- Oyón-Oiongo Udalari eta Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Hirigintza Sailei honako honen berri ematea: prozedura honi hasiera emateak eraginpeko aldeetan lur-zatiketak, eraikuntzak edo eraisketak egiteko udal-baimenen ondorioak eten egiten dituela, baita dagoeneko eman direnenak ere. Alde horietan ezinbestean eta gerorako utzi ezin daitezken lanak egin behar badira, beti ere, dagokion Foru Aldundiaren baimena eskuratu beharko da.

Laugarrena.- Indarrean dauden xedapenen arabera espedientearen izapideak jarraitzea.

Bosgarrena.- Sailkatzeko espedienteari hasiera ematen dion Ebazpena Oyón-Oiongo Udalari, Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Hirigintza Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari jakinaraztea.

Seigarrena.- Sailkatzeko espedienteari hasiera ematen dion Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteizen, 2007ko martxoaren 27an.– Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea, GURUTZ LARRAÑAGA ZUBIZARRETA.

**I. eranskina**

MUGAKETA

Mugaketa.

Labrazako Hirigune Historikoaren mugaketa grafikoa eranskinean adierazitakoa da.

Mugaketaren arrazoiak.

Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legearen 12.1. artikuluak dio kultura-ondasun izendatzeak berarekin ekarriko duela ondasuna bera mugatzea, bai eta hura behar bezala babestu eta balioa emateko beharrezkoa den ingurua ere, eta izendapena zer arrazoirengatik egiten den ere adieraziko dela. Mugatutako ingurunea, Lege horren ondorioetarako, sailkatutako ondarearen zatitzat joko da.

Sailkatutako ondarea mugatzeko bi zona bereizi dira:

– 1. zona: hiribilduaren barruti harresidunari dagokio. Zonaren kanpoko mugak bat datoz hiribilduko harresiaren ingurabidearekin.

– 2. zona: ezarritako mugaketaren barruan dagoen eremuari dagokio. Espazio hori hirigune historikoaren ingurumen-babeseko

Visto el interés histórico-arquitectónico del Casco Histórico de Labraza, sito en Oyón-Oion (Álava) y atendiendo a la propuesta de resolución presentada por los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural,

RESUELVO:

Primero.- Incoar el expediente de declaración como Bien Cultural Calificado, con la categoría de Conjunto Monumental, a favor del Casco Histórico de Labraza, sito en Oyón-Oion (Álava), según la delimitación que se determina en el Anexo I de la presente Resolución y teniendo en cuenta la descripción que en el Anexo II se establece del mismo y de sus elementos, así como el régimen de protección que se incorpora en el Anexo III.

La incoación de este expediente determinará respecto del Casco Histórico de Labraza, sito en Oyón-Oion (Álava) la aplicación provisional del régimen de protección previsto en la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco para los bienes calificados.

Segundo.- Abrir un período de información pública del expediente incoado para la declaración de Bien Cultural Calificado, con la categoría de Conjunto Monumental, a favor del Casco Histórico de Labraza, sito en Oyón-Oion (Álava) en base a la delimitación que figura en el Anexo I, teniendo en cuenta la descripción del Anexo II y estableciendo el régimen de protección que se incorpora como Anexo III del mismo, para que durante el plazo de 20 días contados a partir del día siguiente a la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, se puedan efectuar las alegaciones y presentar la documentación que se estime oportuna, como previenen los artículos 84 y 86 de la Ley 30/1992, del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, encontrándose el expediente de manifiesto en el Centro de Patrimonio Cultural Vasco, sito en la Calle Donostia-San Sebastián nº 1 de Vitoria-Gasteiz.

Tercero.- Hacer saber al Ayuntamiento de Oyón-Oion, así como a los Departamentos de Cultura y Urbanismo de la Diputación Foral de Álava que la incoación del presente procedimiento causa la suspensión de las correspondientes licencias municipales de parcelación, edificación o demolición en las fincas afectadas, así como de los efectos de las ya otorgadas. Las obras que por razón de fuerza mayor hubieran de realizarse con carácter inaplazable en las fincas precisarán, en todo caso, autorización de la Diputación Foral.

Cuarto.- Continuar la tramitación del expediente de acuerdo con las disposiciones vigentes.

Quinto.- Notificar la presente Resolución al Ayuntamiento de Oyón-Oion y a los Departamentos de Cultura y de Urbanismo de la Diputación Foral de Álava, así como al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco.

Sexto.- Publicar la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava para su general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de marzo de 2007.– El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, GURUTZ LARRAÑAGA ZUBIZARRETA.

**Anexo I**

DELIMITACIÓN

Delimitación.

La delimitación gráfica del Casco Histórico de Labraza es la que se expresa en el presente Anexo.

Justificación de la delimitación.

El artículo 12.1 de la Ley 7/1990 del Patrimonio Cultural Vasco dice que la calificación de un bien cultural incluirá la delimitación del bien y del entorno que resulte necesario para la debida protección y puesta en valor de aquel, así como las razones que la han motivado. El entorno delimitado tendrá, a los efectos de esta Ley, el carácter de parte integrante del bien calificado.

Para la delimitación del bien calificado se han considerado dos zonas diferenciadas:

– Zona 1: correspondiente con el recinto amurallado de la Villa. Los límites exteriores de esta zona se corresponden con la ronda de la muralla de la Villa.

– Zona 2: correspondiente con el resto del área incluida dentro de la delimitación establecida. Este espacio se ha considerado como

zonatzat jo da. Horren helburua Labrazako Monumentu Multzoaren irudia gorde eta horri balioa ematea da, inguruko lurren gailenean dagoen gotor-hiri moduan iraun baitu gaur egunera arte, errebaletan gertatu ohi den zabalkunde historikorik izan gabe.

2. zona zehaztean, barruti harresidunaren inguruko zenbait lur sartu dira, harresia inguratzen duen 600 metroko kotako sestra-lerroak mugatzen dituenak, hain zuzen. Oro har, harresiak duen kurbari eusten dio, muinoan hiribildua gailentzen den arean. Muga horretan, beste lur batzuk ere sartzen dira: ipar-mendebaldera lurrak sortzen duen ibarrarekin bat datorren sestra-kurba, eta Labrazara sartzeko A-4211 errepidea ekialdeko eta iparraldeko mugan. Mugak hiribilduak lurrarekin duen lotura kontuan hartuta ezarri dira.

Mugaketak bermatu egin behar du hiribildua gotorleku exentu moduan ulertzen dela, erreba historikorik gabea, eta ikusizko babeseko ingurua zehazten du. Harresiak, kokapen estrategikoan dagoelako, paisaia- eta ikonografia-balio handia duenez eta ingurua oso kaltebera denez, ezinbestekoa da 2. zona mugatzea. Babes-erregimenak 2. zona izeneko arearen garapen-mugak ezartzen ditu, bai eta 1. zonako babes-baldintzak ere.

zona de protección ambiental del Casco Histórico. El fin del mismo es la preservación de la imagen y puesta en valor del Conjunto Monumental de Labraza, que se ha conservado hasta nuestros días cómo una ciudad fortaleza situada en una posición predominante sobre el terreno circundante, sin que se halla producido el desarrollo histórico de arrabales.

Para la definición de la Zona 2 se han incluido los terrenos entorno al recinto amurallado limitados por la línea de nivel de la cota 600 metros que rodea, y mantiene básicamente la curvatura de la muralla actual en el área en que la villa es dominante sobre el montículo en que se asienta. Este límite se completa con la línea curva que forma la vaguada del terreno al noroeste, y la carretera A-4211 de acceso a Labraza en el límite este y norte. Los límites se establecen teniendo en cuenta la relación de la villa con el terreno.

La delimitación debe asegurar el correcto entendimiento de la villa como una fortaleza exenta y la ausencia de arrabales históricos, definiendo un entorno de protección visual. El alto valor paisajístico e iconográfico de la muralla gracias a su estratégica localización y la vulnerabilidad de dicho entorno hacen necesario la delimitación de la Zona 2. El régimen de protección establece los límites del desarrollo del área denominada Zona 2, así como las condiciones de protección para la Zona 1.



## II. eranskina

DESKRIPZIOA

Labraza Arabako lurralde historikoan dago, 677 metroko altueran. 0,57 hektareako azalera du, eta horrenbestez, Euskadiko hiribildurik txikiena da. Labraza nafarrek fundatu zuten, Laguardia, Vitoria-Gasteiz, Antoñana eta Bernedo bezala. Antso Azkarrak Foruak eman zizkion 1196. urteko irailean, haren aita Antso Jakitunak, arestian aipatutako fundazioak egin zituenak, abian jarritako mugak sendotzeko politikari jarraituz. Labraza Erdi Aroko gotorlekurik garrantzitsuenetako bat izan zen. Hori ematen dute aditzera gunearen babes sendoek eta kokapenak, bai eta gobernadoreak edo alkaideak izan zituela dokumentatuta egotea 1294tik. Urte hartan, hain zuzen, gobernadore zen Rodrigo Fernández de Medrano, Filipe I.aren erregetzan. Eta 1333. urtean, Juan de Buli, Filipe III.a errege zela. Defentsa-lanetarako sortu zen, beraz, Labraza. Horregatik eta horretarako, Labraza muino batean eraiki zuten, harresi sendoz inguratuta —hein handi batean zutik diraute gaur egun ere—, muinoaren erdian kokatuko gaztelu-gotorleku baten inguruan.

Erdi Aroko hiribildua da, XVI. mendean zati handi batean eraberritutakoa. Gerora, eginkizun militarra galduz joan zen heinean, babeserako eraikinen eta espazioen ordez etxebizitzak egin zituzten, harresiraino iritsi eta harekin bat egin arte. Dena den, hiribilduak hasierako izaera militarreko egitura trinkoari eusten dio, eta ez da errebalik garatu.

Hiribilduaren erdian gazteluaren harresiaren aztarnak daude, eta horren inguruan zenbait etxebizitza eta eraitsitako beste eraikin batzuen orubeak. Gazteluaren aztarnetan, lodiera handiko harresia ikusten da, 8 metro arteko altuerakoa, eta babeserako dorrea izan zitekeen egitura bat.

Hiribildua inguratzen zuen harresiaren obrari dagokionez, ingurabidearen ia zati guztian zutik dago, eta iparraldean, eliza-gotorlekuarekin bat egiten duen lekuan bakarrik galdu da. Obra, ia zati guztian, etxebizitzei eusteko hormatzat erabiltzen da egun, zati gutxi batzuetan izan ezik. Harresiak etxebizitzetarako euskarri izatera pasa ziren heinean —partikularrek haren hormatalak erabili zituztelako—, baoak ireki zituzten harresietan. Fabrika, oro har, ongi kontserbatuta dago, eta harlanduzkoa da. Harlanduaren lanketa eta tamaina ez da berdina zati guztietan. Zutik dagoen obraren lodiera ere ez da berdina zati guztietan, eta metro batetik 1,80 metrora bitartekoa da. Obraren gailurra dorreak dira, eta 10 edota 12 metro ere badituzte. Harresian, komunikazio-baoak ere badira (egun itxita daude), goiko ingurabidera igo ahal izateko. Defentsa-elementuen aztarnak ere badaude; esaterako, matakanak, goiko errondako bidearen aztarnak eta gezileihoak. Obraren linealtasuna hausten, eta ia perimetro osoan, errefortzurako dorreak edo kuboak ere badira, batzuk oso hondatuta, beste batzuk gutxiago, eta beste batzuk bizitegirako eraikin moduan birgaituta.

Harresian, hiribildura sartzeko bi sarbide nagusi daude: Portal de la Concepción edo hegoaldeko portalea eta Portal de la Peña (mendebaldean). Mendebaldekoa XVIII. mendean itxi zuten, eta egun eraikin batek estaltzen du. Concepción portaleak eraikin atxiki bat du, XVIII. mendekoa: udaletxe zaharra da. Aldean arkuak dituen sarrera-espazio bat sortzen du, osotasuna eratuz, eta ganga eskartzanodun tunel bidezko sarrera du.

Hiribilduaren planoak triangelu itxura du apur bat eta bere baitan itxita eta bilduta dago. Egoera topografikoak ere laguntzen du horretan, eta kaleak lurraren gorabeheratara egokituta daude. Harresiaren barnean hiru kale daude. Nagusia Concepcion da, zuzen-zuzena, eta hirigunea bitan banatu eta harresiaren hegoaldeko atea San Miguel elizarekin lotzen du. Beste bi kaleak hegoaldetik iparralderantz gora doan ardatzaren alde bietan daude eta hauek dira: San Roque kalea (mendebaldean), gaztelu zaharraren inguruko trazatu kurbatu interesgarria duen kalea, eta San Miguel kalea (ekialdean), aurrekoa baino estuagoa. Kale horiek hiribildua ixten dute, oinarri duten lurraren kurbei jarraituz.

## Anexo II

DESCRIPCIÓN

Labraza está situada en el Territorio Histórico de Álava, a 677 metros de altitud y con sus 0,57 hectáreas es la villa más reducida del País Vasco. Labraza es una fundación navarra, junto con las de Laguardia, Vitoria, Antoñana y Bernedo. Será el rey Sancho el Fuerte el que le concede Fueros en septiembre de 1196, continuando la misma política de afianzamiento de fronteras que había sido iniciada por su padre, Sancho el Sabio de Navarra, artífice del resto de las fundaciones señaladas. Labraza se constituirá en una de las plazas fuertes más importantes de la Edad Media, lo que se atestigua por sus fuertes defensas y situación, así como por la presencia de gobernadores o alcaides en la fortaleza documentada desde 1294, fecha en que ocupaba este cargo Rodrigo Fernández de Medrano, en el reinado de Felipe I, o en 1333 Juan de Buli, reinando Felipe III. La causa por tanto que lleva a la creación de éste núcleo de Labraza será la defensiva. Por y para ello, Labraza se instala en lo alto de un montículo, rodeándose de fuertes murallas, las cuales hoy se mantienen en buena medida, organizándose en torno a un castillo-fortaleza que se dispone en el centro de la colina.

Por otra parte, se trata de una villa medieval reformada en gran parte durante el siglo XVI. Posteriormente, al ir perdiendo su función militar fueron sustituyéndose las edificaciones y espacios defensivos por viviendas, hasta alcanzar la muralla y absorberla. No obstante, la villa mantiene la estructura compacta inicial de carácter militar, sin el desarrollo de arrabales.

Del castillo quedan restos de sus muros en el centro de la villa, alrededor de los cuales existen viviendas y algunos solares de otras construcciones derruidas. Se observa del castillo, un muro de excelente grosor y altura de hasta 8 metros, así como lo que parece puede interpretarse como un torreón defensivo.

En cuanto a la obra de la cerca que envolvía a la villa se puede decir que se conserva en alzado en la mayoría de su discurso, perdida únicamente en la zona Norte al contacto con la iglesia-fortaleza, y es utilizada como muro sobre el que se acomodan las casas de vivienda en el resto de su recorrido, salvo en zonas puntuales. La muralla se ha visto sometida a continuas aperturas de vanos al pasar a tener una función doméstica, tras la privatización de sus lienzos por los distintos particulares. Su fábrica se encuentra en general bien conservada y es de sillería de labra y tamaño variable según los tramos. El grosor de la obra que se mantiene cambia desde 1 a 1,80 metros. La altura máxima de la obra se encuentra en las torres, llegando a alcanzar hasta 10 y 12 metros. Se conservan también en la muralla vanos de comunicación, que permitían su circulación por el paso de ronda elevado, actualmente cegados. También permanecen huellas de elementos defensivos como matacanes, restos del camino de ronda superior y saeteras. Igualmente y rompiendo la linealidad de la obra, se disponen torres de refuerzo o cubos en la practica totalidad del perímetro, en distinto grado de conservación, algunos deteriorados y otros rehabilitados como edificios residenciales.

En cuanto a los puntos de acceso a la villa a través de la muralla, se pueden señalar dos, el Portal de la Concepción o Sur y el Portal de la Peña (ubicado al oeste), que se cegó en el siglo XVIII y actualmente está oculto por una edificación. El portal de la Concepción tiene una construcción adosada del siglo XVIII, antiguo ayuntamiento, cuya planta forma un espacio de entrada con arcos laterales formando un conjunto unitario y un acceso en un túnel con bóveda escarzana.

El plano de la villa es ligeramente triangular y completamente cerrado y envuelto en si mismo. A ello también contribuye la situación topográfica, de modo que las calles se ajustan a los desniveles del terreno. Son tres las vías que se localizan intramuros, la principal es la de la Concepción, de trazado rectilíneo, que divide el núcleo en dos y que pone en comunicación directa la Puerta Sur de la muralla con la iglesia de San Miguel. Hay dos calles más, ubicadas a ambos lados de este eje ascendente sur-norte, la de San Roque (al oeste) con un interesante trazado curvo entorno al antiguo castillo y la de San Miguel (al este) de menor anchura. Estas calles cierran la villa siguiendo las curvas del terreno sobre el que se trazan.

Labrazako hiri-egitura lau elementuk antolatzen dute, eta horren arabera daude ezarrita etxadiak. Hona hemen: eliza eta harresiaren hegoaldeko atea, kaleek bat egiten duten guneak; harresia; eta gaztelua, erdian, plazatxo bat duela aurrean. Harresiaren barruan dauden hiru espazio publikoak, kaleez gain, hauek dira: Plaza Nagusia edo Elizako plaza, hegoaldeko portaleko plaza txikia, eta Goiko plaza edo Gazteluko plaza. Plaza Nagusia XVIII. mendearen amaieran sortu zen, bertan zegoen hilerria harresietatik kanpora eraman zutenean, elizaren iparraldera, eta han, egun, hiribildurako sarrera bat dago, iparraldeko area horretan harresia bota egin zuten-eta. Hegoaldeko portaleko plaza txikia da, eta portale horretatik hurbil dago. Gazteluko plaza txikia eta interesgarria da, 12 x 7 metro ingurukoa, eta sarrera bakarra du Concepción kaletik. Badirudi gazteluaren barruko patioa izan zela eta gaur egun gaztelua zegoen lekuan eraikitako etxeei ematen die zerbitzu.

Azkenik, azpimarratu behar da errondako biderik ez dagoela; alegia, harresiko obra exentu edukiko zuen egitura. Hori eta hesia bereganatu egin dituzte partikularrek. Izan ere, etxebizitzak egiteko azalera txikia zutenez, sakonerantz luzatu zituzten eta hesia etxebizitzaren barneko atzeko horma bihurtu. San Miguel kaleko etxeetan eta San Roque kalekoetan ikus daiteke hori, behin harresiak babesfuntzioa galdu zuenean. Beste alde batetik, etxebizitza gehienak XVIII eta XIX. mendeetako herri-izaerako eraikinak dira, eta intereseko elementuak dituzten eraikin gehienak, XV eta XVI. mendeetakoak, San Roque kalean daude, mendebaldeko zonako harresiari atxikita. Hona hemen elementu garrantzitsuenak: erdi puntuko arkuak, dobela handiak, zenbait leiho konopial, harlanduzko fabrika, partzelamorfologia eta armarritxoak. Harresitutako barrutiz kanpo ere badira interesa duten eta hiribilduarekin lotuta dauden eraikinak. Esaterako, elurtegi bat iparraldean, eta mairuaren iturria mendebaldean. Mairuaren iturria harrizkoa da, zorrotz samarra den kanoi-gangaz estalia; sarrera arku zorrotz bikoitzekoa du, eta hodia estilo gotikoan landutako buru batez apainduta.

**III. eranskina**

BABES-ERREGIMENA

I. KAPITULUA: BABES-ERREGIMENAREN IZAERA

1. artikulua.– Babes-erregimenaren helburua.

Babes-erregimen hau Labrazako Hirigune Historikoa monumentumultzo sailkatutzat hartzen duen aitorpenaren zati da eta, horrenbestez, sailkapenaren eraginpean dauden ondasunen kontserbazioa haren menpe jarri beharko da eta hirigintza-plangintzako tresnek aitorpenean hitzarturikoa bete beharko dute.

2. artikulua.– Aplikazio-eremua.

Jarraian zehazten den babes-erregimena Labrazako Hirigune Historikoaren mugaketaren barruan dauden eraikin eta espazio guztiei ezarriko zaie.

II. KAPITULUA: ERREGIMEN OROKORRA

3. artikulua.– Edukia.

Testu honen edukiak babes-erregimen hau garatuko duen hirigintza-plangintzak nahiz etorkizunean egin litezkeen plangintza horren berrikuspenek ondarea babesteko bete beharko dituzten baldintza orokorrak finkatzen ditu.

4. artikulua.– Garapeneko hirigintza-plangintza.

1.– Babes-erregimen honetan dauden ondasunei aplika dakiekeen hirigintza-plangintzak Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko 28.1. artikuluak aipatzen duen txostena beharko du. Txosten horretan edozein eskuhartzeren harmonizazio-maila jasoko da, oin berriko eraikuntzena barne.

2.– Babes-erregimen hau garatuko duten hirigintza-tresnak onartzen ez diren bitartean, goian aipatutako legeko 28.2. artikulua zehatz-mehatz bete beharko da.

5. artikulua.– Xedapen Orokorrak.

1.– Espazio publikoetan egin beharreko jarduera orok espazio horien izaera eta egitura indartuko du eta, halaber, hiri-altzariak multzo osoaren ingurune-izaerarekin integratu eta harmonizatuko dira.

Cuatro son los elementos ordenadores de la trama urbana de Labraza y en función de éstos se disponen las manzanas de casas: la iglesia y Puerta Sur de la muralla como puntos focales en los que convergen todas las calles, la muralla y el castillo central que genera una pequeña plaza. Los tres espacios públicos interiores a la muralla, además de las calle, son: la Plaza Mayor o de la Iglesia donde se localiza actualmente una entrada a la villa, al haber desaparecido la muralla en ese área norte (esta plaza surge a finales del siglo XVIII al trasladarse el cementerio allí existente al lado norte extramuros de la iglesia), la Plazuela del Portal Sur de pequeñas dimensiones (próxima al portal Sur) y la plaza Alta o del Castillo, un interesante y reducido espacio de aproximadamente 12 x 7 metros, con entrada única desde la calle de la Concepción, que se supone fue parte del patio interior del castillo y actualmente sirve a las viviendas que han sustituido al castillo.

Por último se debe señalar la ausencia del camino de ronda que en origen mantendría exenta la obra de la muralla, espacio público que al igual que la cerca, ha sido absorbido en beneficio de los particulares, que al contar con escasa superficie para levantar sus viviendas, optan por alargar éstas en profundidad, convirtiendo la cerca en muro trasero integrado en la vivienda. Proceso este que se observa en las casas de la calle San Miguel así como en las de San Roque, una vez ha perdido la función defensiva la muralla. Por otra parte, la mayor parte de los inmuebles responden a edificaciones populares construidas en los siglos XVIII y XIX, dándose la mayor concentración de edificios con referencias de interés del siglo XV y XVI, como arcos de medio punto, grandes dovelas, alguna ventana conopial, fábricas de sillería, morfología parcelaria o escudetes, en las viviendas que se apoyan en la muralla de la zona oeste, en la calle San Roque. Así mismo existen inmuebles fuera del recinto amurallado que mantienen interés y relación con la villa como una nevera en la zona norte y la fuente del moro en la zona oeste, fuente de piedra cubierta por bóveda de cañón ligeramente apuntado y acceso con doble arco apuntado, que tiene el caño decorado con una cabeza tallada al estilo gótico.

**Anexo III**

RÉGIMEN DE PROTECCIÓN

CAPÍTULO I: CARÁCTER DEL RÉGIMEN DE PROTECCIÓN

Artículo 1.– Objetivo del régimen de protección.

El presente régimen de protección forma parte de la declaración del Casco Histórico de Labraza como Conjunto Monumental calificado, debiendo someterse al mismo la conservación de los bienes afectados por la calificación y ajustarse a sus estipulaciones los instrumentos de planeamiento urbanístico.

Artículo 2.– Ámbito de aplicación.

El régimen de protección que se fija a continuación será de aplicación para la totalidad de los inmuebles y espacios incluidos en la delimitación del Casco Histórico de Labraza.

CAPÍTULO II: RÉGIMEN GENERAL

Artículo 3.– Contenido.

El contenido de este texto fija las condiciones generales a cumplir en lo referente a la protección del patrimonio, tanto por el planeamiento urbanístico que desarrolle este régimen de protección, como por las sucesivas revisiones del mismo a efectuar en el futuro.

Artículo 4.– Planeamiento urbanístico de desarrollo.

1.– El planeamiento urbanístico aplicable a los bienes incluidos en el presente régimen de protección, requerirá el informe que menciona el artículo 28.1. de la Ley 7/1990, de 3 julio de Patrimonio Cultural Vasco, el cual incluirá el grado de armonización de cualquier intervención, incluida la edificación de nueva planta.

2.– En tanto no se aprueben los instrumentos urbanísticos que desarrollen el presente régimen de protección, será de estricto cumplimiento el artículo 28.2 de la citada Ley.

Artículo 5.– Prescripciones Generales.

1.– Toda actuación a ejecutar en espacios públicos potenciará el carácter y la estructura urbana de los mismos integrando y armonizando, asimismo, el mobiliario urbano con el carácter ambiental del conjunto.

2.– Babes-erregimen honen babes-mailetan jasoriko eraikin guztiek, baimen, erabilera, jarduera, defentsa, zigor, arau-hauste eta gainerako alderdiei dagokienez, Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legean aurreikusitakoa bete beharko dute.

3.– Babes-erregimen honek aipatzen dituen birgaitzeko esku-hartzeen motak Ondare Urbanizatua Birgaitzeko Jarduketa Babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan garatutakoak dira.

4.– Monumentu kategoriarekin kalifikatutako kultura-ondasuntzat aitortuta dauden edo etorkizunean halakotzat jotzen diren eraikin eta elementuei, eta horren ondorioz xehetasun guztiak jasotzen dituen babes-erregimenaren pean daudenei, alegia, erregimen hori aplikatuko zaie eta araudi hau osagarri gisa aplikatuko da.

5.– Babes-erregimen honen eraginpean dauden ondasunen jabeek Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legeko 20 eta 35. artikuluek eta Lurzoruaren 6/1998 Legeko 19. artikuluak ezartzen dituen kontserbazio-, zaintza- eta babes-betebeharrak bete beharko dituzte.

6.– Babes-erregimen honen babes bereziko, oinarrizko babeseko edo zati babes partzialeko zerrendetan jasota dauden ondasunak eraistea Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko 36. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz baino ezin izango da baimendu.

7.– Salbuespen-kasu batean, babes-erregimeneko erregimen orokor honen aplikazioaren ondorioz, elementu jakin batzuetan erabilera publiko berriak sartzea ezinezkoa bihurtzen denean, alegia, Eusko Jaurlaritzako organo eskudunak xedatzen duena bete beharko da.

8.– Babes-erregimen honen aplikazioaren ondorioz, elementu jakin batzuk osorik edo partzialki eraits badaiteke, edota 6. idatz-zatiaren arabera arautatakoen kasuan, gorde egin beharko dira bistan edo gaur egun ezkutuan dauden eta fabriken bereizgarriak diren harrizko elementuak (hala nola, harlanduzko ertzak, ateburuak, leihoburuak, inpostak, mentsulak etab.), eraikuntza berrian erabiltzeko, nahiz eta ez egon babes-erregimen honetako 4. zerrenda barruan (babes partzialekoen artean).

9.– Babes-erregimen hau garatuko duen hirigintza-plangintzak egungo zenbait eraikinen gehienezko altuera berrikusi beharko du, tratamendu edo osaera erabat ezberdina duten altxaeren ondorioz bere inguruko edo kaleko altuera nabarmenki gainditzen dutenena, alegia.

6. artikulua.– Harresiak.

Harresiaren kontserbazio-egoera zer-nolakoa den ikusita, ezinbestekoa izango da multzoa zaharberritzeko eta kontserbatzeko proiektua egitea. Esku-hartze partzialetan egin ohi denez eta zenbait urtetan luzatzen denez, Multzoaren Plan Zuzentzailea egitea gomendatzen da. Hor egungo aztarna guztiak datatuko dira, eta altxatuen eta lurpearen azterketa estratigrafikoan oinarrituta eta lehengoratze fotogrametrikoaren bidez edo altxatuak zuzenduz, jarraibide orokorrak emango dira, ondoz ondoko proiektuetan garatzeko.

Multzo historikoa denez, aurretik ezarritako irizpideak garatu behar dira proiektu guztietan. Irizpide horiek esku-hartzeen ikuspegi globala izan eta zaharberritze-plan bakarrari jarraitu behar diote.

Harresia jendearen bizileku den elementua denez eta erabilera hori finkatuta dagoenez, egun dauden kanpoko baoak finkatzeko baimena ematen da, eta babes-erregimen hau garatuko duen hirigintza-plangintzaren egitekoa izango da horien tratamendu espezifikoa zein izango den zehaztea. Kontuan hartuta gaur egun harresian dauden baoak eta harresiari atxikitako etxebizitzetan egin daitezkeen esku-hartzeak, ez da baimenik emango bao gehiago egiteko, ez eta gaur egun daudenak handitzeko ere. Lehendik baziren baina egun itxita dauden baoak berreskuratzeko baimena ematen da. Horrez gain, Peña portalea lehengoratzeko esku-hartzeei lagundu egingo zaie.

Bestalde, ezin izango da egin harresiak berak osatzen duen plano bertikala gainditzen duen hegalkinik (balkoiak, esaterako), eta

2.– Todos los edificios incluidos en los niveles de protección del presente régimen de protección, estarán sujetos en cuanto a régimen de autorización, uso, actividad, defensa, sanciones, infracciones y demás extremos a lo previsto en la Ley 7/1990, de Patrimonio Cultural Vasco.

3.– Los tipos de intervenciones de rehabilitación a que se refiere el presente régimen de protección son los desarrollados en el Decreto 317/2002, de 30 de diciembre, de actuaciones protegidas de rehabilitación del patrimonio urbanizado.

4.– Para aquellos inmuebles y elementos que estén declarados como bien cultural calificado con la categoría de monumento o lo sean en el futuro, y por tal circunstancia cuentan con un régimen de protección pormenorizado, les será de aplicación dicho régimen, resultando la presente normativa de aplicación supletoria.

5.– Los propietarios de los bienes afectados por el presente régimen de protección vendrán obligados al cumplimiento de las obligaciones de conservación, cuidado y protección impuestas por la Ley 7/1990, de Patrimonio Cultural Vasco en sus artículos 20 y 35, y por el artículo 19 de la Ley del Suelo 6/1998.

6.– El derribo de los bienes incluidos en los listados de protección especial, protección básica o protección parcial del presente régimen de protección solo podrá autorizarse de conformidad con lo dispuesto en el artículo 36 de la ley 7/1990, de 3 de julio de Patrimonio Cultural Vasco.

7.– En el caso excepcional de aquellos elementos en los que la aplicación del presente Régimen General del régimen de protección no posibilite la introducción de nuevos usos públicos en los mismos, se estará a lo que a tal efecto disponga el órgano competente del Gobierno Vasco.

8.– En el caso de aquellos elementos en los que la aplicación del presente régimen de protección posibilite la demolición total o parcial de los mismos, o bien en el caso de los regulados según el apartado 6, deberán de ser mantenidos los elementos pétreos, vistos o actualmente ocultos, característicos de las fábricas, tales como sillares esquineros, dinteles, impostas, ménsulas, etc, para su utilización en la nueva construcción aún en el supuesto de no estar recogidos dentro del listado 4 (protección parcial) del presente régimen de protección.

9.– El planeamiento urbanístico que desarrolle este régimen de protección deberá revisar la altura máxima de aquellos inmuebles existentes que, como resultado de levantes cuyo tratamiento y composición pueda ser valorado como discordante, presenten una altura que sobrepase claramente la de su entorno o calle.

Artículo 6.– Las Murallas.

Dado el estado de conservación en que se encuentra la muralla, se deberá realizar un proyecto de restauración y conservación del conjunto. Como es habitual realizarlo en intervenciones parciales y su ejecución se extiende a varios años, se recomienda elaborar un Plan Director del Conjunto, en el que se daten todos los vestigios existentes y, basándose en un análisis estratigráfico de los alzados y subsuelo mediante restitución fotogramétrica o rectificación de alzados, dar unas directrices generales que serán desarrolladas en proyectos sucesivos.

Al tratarse de un conjunto histórico, cada proyecto debe desarrollar unos criterios generales establecidos con anterioridad, que contemplen una visión global de las posibles intervenciones y obedezcan a un único Plan de Restauración.

Dado el grado de consolidación de la muralla como elemento habitado se permite la consolidación de los vanos exteriores existentes, siendo función del planeamiento urbanístico que desarrolle el presente régimen de protección el tratamiento específico de los mismos. Debido al actual número de vanos existentes en la muralla y las características y posibilidades de intervención en las actuales viviendas adosadas a la misma, no se permite la realización de nuevos vanos, ni el aumento de tamaño de los ya existentes. Se permite la recuperación de vanos anteriormente existentes que se encuentran actualmente cegados. Así mismo se favorecerá las actuaciones tendentes a la recuperación del portal de la Peña.

Por otra parte no se permitirán elementos volados, como balcones, que superen el plano vertical que forma la propia muralla

harresiko kanpoko paramentuetako instalazio oro kendu egingo da, zorrotenak barne. Babes-erregimen honek degradatzailetzat jotzen dituen eranskinak, harresiari atxikiak, kendu egingo dira.

7. artikulua.– Lursailen zatiketak.

1.– Erdi Aroko Hirigune historikoaren egitura berezia denez, eta horren egitura morfologikoa babestu ahal izateko, lursailen egungo zatiketa bere horretan utziko da oro har, zatiketa hori berez balioa duen zerbait da-eta.

2.– Lursailaren forma eta azalerari zehatz-mehatz eutsi beharko diote babes-mailaren bat duten elementuek. Babesik ez duten elementuetan lursailak banandu edo elkartu ahal izango dira hirigune historikoaren ezaugarriekin bat datozen eskala-baldintzei eusteko edo zatiketaren jatorrizko zergatia berreskuratzeko, baina inoiz ez da onartuko banantzeak edo elkartzeak zatiketa-irizpide hori haustea ekartzen badu. Aurreko paragrafoan adierazitako egoerak garapeneko hirigintza-planeamenduaren dagokion dokumentuan adieraziko dira, eta horrelakorik egiteko, babes-erregimen honetako 4. artikuluan adierazitako txostena egin beharko da. Dokumentu horrek lursailak banandu eta elkartzeko baimena duten eragiketak adierazi eta arrazoitu egingo ditu.

3.– Hiri-egitura, publiko eta pribatuaren definizioa denez, monumentu-multzo baten ezaugarri bereizgarrietako bat eta lursail-egituraren azken euskarria da. Beraz, ez da onartuko egituraren egungo lerrokadurak aldatzea, ez bada babes-erregimen horrek degradatzailetzat jotako elementuak aldatu edo kentzeko zuzenketa zehatza.

8. artikulua.– Bodegak.

1.– Labrazako orubeetan bodegak daudenez, babes-erregimen hau garatzeko hirigintza-planeamenduak kontuan edukiko du bodegen azterketa, balorazioa eta babesa, kontuan hartuta haien interes tipologikoa eta funtzionala. Bodegen balorazioa eta babesa aintzat hartzen dituen hirigintza-planeamendurik ez dagoen bitartean, hirigune historikoko lurpeko egitura horietan egiten diren esku-hartzeak Arabako Foru Aldundiko Kultura Ondareko Zerbitzuaren kontrolaren pean egongo dira.

9. artikulua.– Esku-hartzeko proiektuak.

Oinarrizko babeseko mailan sartutako edozein eraikinetan egiten den esku-hartzeko proiektuak egungo egoeraren dokumentazio grafiko zehatza bilduko du: solairu, fatxada eta sekzioak 1/50 eskalan; arkitektura-xehetasunak 1/20 eskalan, dokumentazio fotografiko osoa, plano historikoak, eraikinaren eraikuntza- eta apainketa-materialen deskribapena, eta abar. Babes bereziko mailan sartutako edozein eraikinetan egiten den esku-hartzeko proiektuak lehengoratze fotogrametrikoaren edo altxatuak zuzentzearen bidezko dokumentazio grafikoa bilduko du, azterketa estratigrafikoa egiteko.

10. artikulua.– Eraberritzeko eta ordezteko lanak.

1.– Hirigune historikoaren barruko eraikinak eraberritu eta ordezkatzeko obretan bete beharreko baldintzak finkatzen dituen hirigintza-plangintza onartzen ez den bitartean, bereziki egungo okupazioa irregularra bada, ezin izango da lursailen antolaera bolumetrikoan aldaketarik egin, eta mota horretako jarduerek honako irizpide hauek bete beharko dituzte:

a) Estalkiak bi isurialde izango ditu eta gailurra fatxada nagusiarekiko paralelo egongo da, kasu berezietan izan ezik; hala nola, kaleen elkargune diren eraikinetan, garrantzi handiko eraikin isolatuetan, eta abarretan.

b) Lehen ziren teilategal eta gailurrerainoko altuerei eutsiko zaie, inguruko fatxada babestuetan nagusi direnak gainditzen badituzte izan ezik, horien altuerara egokitu beharko dira-eta. Haiek baino baxuagoak badira, adierazitako eraikin babestuen altueretara egokitu ahal izango dira.

c) Teilategalek, bai hegalkinean, bai ertzean, hirigunearen ingurune-balioaren adierazgarri direnen ezaugarriak beteko dituzte. Ez da inolaz ere 20 cm-tik gorako ertzik onartuko.

y se procederá a la eliminación de cualquier instalación en los paramentos exteriores de la muralla, incluidas bajantes de cualquier tipo. Se eliminaran, como mínimo, los anexos a la muralla que el presente régimen de protección establece como degradantes.

Artículo 7.– Parcelaciones.

1.– Dada la particular estructuración del Casco Histórico Medieval, y con el fin de preservar las condiciones morfológicas del mismo, se mantendrá con carácter generalizado el esquema de parcelación existente, al ser considerada su permanencia una circunstancia digna de valoración en sí misma.

2.– La conservación de forma y tamaño de la parcela será estricta en el caso de los elementos sometidos a algún nivel de protección. En los casos de elementos sin protección, se permite la segregación o agrupación de parcelas en orden a mantener unas condiciones de escala acordes con las características del Casco Histórico y/o recuperar el sentido original de las parcelaciones, pero nunca en los casos en que la segregación o agrupación propiciase situaciones contrarias al referido criterio de lotización. Las situaciones descritas en el párrafo anterior deberán ser identificadas en el correspondiente documento de planeamiento urbanístico de desarrollo, que requerirá del informe a que hace referencia el artículo 4 de este régimen de protección. Este documento deberá señalar y justificar las operaciones permitidas de segregación y agregación de parcelas.

3.– Puesto que la trama urbana, como definición de lo público y lo privado, resulta ser uno de los rasgos característicos de un Conjunto Monumental, además del soporte último del parcelario, no se permitirá la modificación de las alineaciones actuales de las mismas, salvo correcciones puntuales con el fin de modificar o suprimir la implantación de elementos degradantes así determinados por el presente régimen de protección.

Artículo 8.– Las Bodegas.

1.– Dada la existencia de bodegas en los solares de Labraza la redacción del planeamiento urbanístico de desarrollo del presente régimen de protección contemplará el estudio, valoración y protección de las mismas en función de su interés tipológico y funcional. En tanto no se disponga de un planeamiento urbanístico que contemple la valoración y protección de las bodegas, las intervenciones sobre estas estructuras del subsuelo del casco histórico están sometidas a control del Servicio de Patrimonio Cultural de la Diputación Foral de Álava.

Artículo 9.– Proyectos de intervención.

Los proyectos de intervención sobre cualquiera de los edificios incluidos en el nivel de protección básica, contendrán una documentación gráfica detallada de su estado actual, a escala 1/50 para las plantas, fachadas y secciones, con detalles arquitectónicos a 1/20, documentación fotográfica completa, planos históricos, descripción de los materiales constructivos y decorativos existentes en el edificio, etc. Los proyectos de intervención sobre cualquiera de los edificios incluidos en el nivel de protección especial, contendrán una documentación gráfica mediante restitución fotogramétrica o rectificación de alzados para su análisis estratigráfico.

Artículo 10.– Obras de reforma y sustitución.

